

Liburuak

kri ti ka

Axola ez duenean.
Aritz Gorrotxategi.
Alberdania. 152 orrialde. 14,50 euro.



Helduen literatura
Saioa Ruiz Gonzalez

Memoriaren minak

ELEBERRI HAU irakurtzen amaitu nuenetik, etengabe itzulzen den galdera batek darraikit buruan. Alegia, zer da testu-literario bat irakurtzera bultzatzen gaituena, eskaintzen diren beste askoren artean? Suposatzen dut orotariko eta gustu guztietarako erantzunak badirela baina, nire kasuan, titulua bera suertatu zitzaidan erakargarri –*Axola ez duenean*– eta aitortu beharra dut, eleberria irakurri aurretik ez nintzela izenburu beraren karga potentzialaz jabetu ere egin. Hortaz, beste galdera bat datorkit gogora: zein zen eleberri honekiko nire espektatiba pertsonala? Momentuz ez daukat galdera honetarako erantzunik baina ziur naiz gauza batez, ni ere aldatuz noa.

Superfiziarki esanda, pertsonaiengan joandako bizitzaren minak eragindako barne aldaketak osatzen du eleberriaren argumentua, eta iraganak sortutako korapiloa askatzeko prozesuan gorpuztuz joango da nobelaren sare nagusia, planteatuko zaien dilema erabakigarri baten eskutik: eternitatean ala denboran bizi? Baina galdera horretarako, bada erantzun klabe bat ere: gauza guztiak ordenuz higitzen dira eta etengabe doaz. Galdera-erantzun horretan biltzen da, pertsonaiak noraezean uzten dituen iragana eta oraina, memoria eta ahanztura elementuen arteko tentsio dramatikoak.

Pertsonaien artean, tentsio horren eredia antonomasiar, emakume bat dugu. Irenek beldurra die trenei, senarra hil zaionetik dortokaren antzera dabil eta Tolstoi du idazle kuttuna. Errealitate errutinarioan txertatua den arren –lana, terapia, ibilaldiak– imaginarioari lotuak dauden sinboloz eta metaforaz beteriko mundu batean ageri zaio irakurleari –ibaia, tren, animaliak, eternitatea– deskodifikatu beharreko mezu baten antzera. Elementu horiek guztiek osatzen dute Ireneren memoriaren konstelazio sarea, etengabe itzultzen diren iraganeko mamuen itxuraz, ahaztuezinak.

Hala ere, ez al da memoria eternitatearen sinbolo? Memoria eta denbora bateraezinak dira, bizitza eta heriotza bateraezina diren modu berean. Denbora gizakiaren eboluzioan funtsezko elementua da, testuak berak dioenez –“Esperientzia bakoitzarekin aldatzen bazara, zer da zugan aldaezin geratzen dena? Etengabe aldatzeko bokazioa”–. Memoria, etengabe itzultzen den zerbait aldaezina izanik, hura berreskuratuz eta gogoratuz ahaztu dezakegu. Horrela, *Axola ez duenean*, soilik, iraganaz sendatuta gaudela sinestu dezakegu. n

Bidaia baten irakaspenak

Txani Rodriguezek idatzi du Saure argitale-txeak argitaratu berri duen *Abentura olinpikoa* komikiaren gidoia. Marrazkiak Nacho Fernandezek egin ditu eta kolorea Veronica Rosadok jarri. Miel A. Elustondori zor diogu, berriz, euskaratzea. Txanoa sailean argitaratutako lan honetako protagonistak

Manuel eta bere ikaskideak dira. “Olinpiada berde” batzuetan parte hartzeko aukeratu dituzte eta horregatik, Australiatik Euskal Herrira etorriko dira, jokoak hemen egingo baitira. Abentura berriak eta lagun zaharrak, biak aurkituko dituzte bisitak iraungo duen bitartean. Eta izango da zer ikasia: adibidez, jokoak joko, irabaztea ez dela garrantzitsuena. y



Abentura olinpikoa.
Batzuen artean.
Saure.
48 orrialde.
16 euro.

Senez itzulpen aldizkaria, edukiz betea

Karga-karga eginda dator *Senez* aldizkariaren zerbaki berria: beste artikulua askoren artean, Andoni Sarriegi Eskisabelek *Idazmakinetatik itzulpen memoriatar*a izeneko idatzi du; Xabier Aristegieta Okiñenak euskarazko testuen komunikagarritasun problema “larria”-ri buruz jardutako; *Matxin* euskarazko lehen itzultzaile automatikoaz berba egin dute hainbat egilek; Itziar Otegi CEATLen (Europako Literatur Itzultzaile Elkartearen Kontseilua) gaur egungo egoera hartu du hizpide; Juan Martin Elexpuruk Molieren bertsoak itzultzeko izandako buruhaustea azaldu ditu; Iban Zalduak *Kafkaren itzultzailea* ipuina argitaratu du; eta

zerbaki bukaeran euskal literatur itzulpenari buruzko dosierra argitaratu dute. y



Senez 37.
Batzuen artean.
EIZIE.
331 orrialde.
11,95 euro.